



Beñat Gaztelumendi
Bertsolaria

Uztaila



Egun euritsu bat Zurriola hondartzan. Gorka RUBIO | FOKU

Batzuetan hankek espero gabeko lekuetara eramaten naute. Nik agindu gabe ematen dituzte urratsak, eta konturatzerako lekuz kanpo sumatzen dut nire burua. Agian urteek ere gauza bera egingo dute: abisurik eta agindurik gabe aurrera segi, alegia, eta ohartzerako ezezagun zaigun inguru batek estutuko digu ikusmena. Eta arrotz sentituko gara elkarrizketetan, arrotz begiradetan, eta itxura harroz disimulatuko dugu gure arrotzasuna, lezioak emanaz edo zilborraren zidoretan gure burua erdigunean kokatuz; «nik zuen adina neukanean» edo «nik hau egingo nuke»; «nik», «nik», «nik». Beti «nik». Ezkutatzeke ez baitago nabarmentzea baino metodo eraginkorragorik.

Ezkutatu arren itomenak estutuko dizkigu biriak eta harriduraz irakurriko ditugu egunkariak. Eraso homofoboak Bilbon eta bortxaketak Barakaldon; makroepaiketak Madrilen eta azalaren kolorearen arabeko harrera politika Baionako ostatu batean. Tentsioa Kuban eta futbol zelai beteak Londresen. Arrotz sentituko dugu mundua, higuinak nahasiko tripa barruak eta gure oin nekatuei begiratuko diegu, nora ekarri gaituzten galdezka.

«Nora» baino «noiz» da galdera, ordea. Noiz gertatu zitzaigun. Noiz egin genuen mundutik ihes edo, hobeto esanda, noiz utzi gintuen munduak bide bazterrean. Noiz erabaki zuen gu gabe aurrera egitea, gu iritsiko ez ginen leku arrotz horietara joatea. Momentu zehatz baten bila abiatuko gara gure biografia

ajatueta; begiak kliskatu genituen une zehatz hori, elkarrizketa batetik ihes egin genuen arratsalde euritsu hura, telebistari begiralo hartu genuen iluntze urrun hura. Hara itzuli nahiko genuke, kiribildutako kableak askatu eta berriro hasi, munduari berriz ere hemen gaudela esan, ez garela inora joan, despistatuta ibili garela, besterik ez.

Euri tantek aterako gaituzte gure pentsamendu ezinezkoetatik. Eta ikaraz begiratu diegu ezagutzen ez ditugunei, zauritutako basurdeek nola. Eta hurbiltzen zaigun orori hortzak erakutsiko dizkiogu, gure indarra,

gure azal gogortua, gure begirada ziurra. Eta are gehiago gotortuko gara jada gure sentitzen ez ditugun gorputz antzaldatueta, gure bakardadean, gure gotorleku pitzatueta. Guk, inguruak eta ingurukoek egin gaituztenok, ez diogu inori gure begi barruak arakutzen utziko. Inoren ametsek ez gaituzte inarrosiko; beste inoren ikarek ez gaituzte aztortuko. Gu baino ez gaude, gure gorputzean. Mendira abiatuko gara antsiaz, edo lasterka hasiko gara goizero; kiroldegiren batean izena emango dugu akaso, gure gorputzak gurtuko ditugu, gotorleku bat eraikiko dugu bertan.

Baina, ohartzerako, udarik gabeko uztail euritsu bateko zaparradek etengo dute gure itsasertzeko ibilaldia. Eta ez dugu inguruan dugunik ezagutuko. •